

HARRERA AURREZ AURRE

AZALPENA:

Harrera euskaraz egitea oso garrantzitsua da. Euskal Herrian badago populazioaren zati handi bat erdalduna dena, baina euskaldunak edo elebidunak ere ez dira gutxi. Gehienetan, agurrak euskaraz emateak ez du sortzen inolako nabarmenkeriarik, aski ondo ulertzen baitira eta euskal herritar guztiek ezagutzen dituztelako.

Hortaz, bisitaria euskalduna izanez gero, harrera euskaraz eginez, bidea ematen diozu euskaldun bati euskaraz egiteko. Beste alde batetik, erdalduna bazara edo, oraindik ez bazara euskaraz ondo moldatzen, begirunea islatzen diozu euskalduna den bezeroari, eta ez duzu erdalduna baztertzen “egun on” esateagatik.

Hona hemen harrera aurrez aurre (zein telefonoz) egiteko ohiko esaldi batzuk:

Egun on	Buenos días
Eguerdi on	Para saludar al mediodía (No hay equivalente)
Arrasti on / Arratsalde on	Buenas tardes
Itxaron momentu bat, mesedez	Espere un momento, por favor
Berehala nago zurekin	Enseguida estoy contigo
Bere bila joango naiz	Voy a buscarle
Oraintxe abisatuko diot	Ahora mismo le aviso
Barkatu, ez dakit euskaraz, ikasten ari naiz	Perdona, no sé euskera, estoy aprendiendo
Zer egin behar da?	¿Qué hay que hacer?
Ez dakit zer egin behar den	No sé qué hay que hacer
Badakit zer egin behar den	Sí sé qué hay que hacer
Aurrekontua egin behar da	Hay que hacer un presupuesto
Lan hori egitea egokitu zaizu	Te ha tocado hacer ese trabajo
Ordaindu du?	¿Ha pagado?
Bai, ordaindu du	Sí, ha pagado
Ez dakit ordaindu duen	No sé si ha pagado
Oso garrantzitsua da	Es muy importante
Lasai, ez du garrantzirik	Tranquila/o, no tiene importancia

NOR DA? ¿QUIEN ES?

Nor da Ane? Ane administraria da.	¿Quién es Ane? Ane es administrativa.
Nor da administraria? Administraria Ane da.	¿Quién es el/la administrativa/o? La administrativa es Ane.
Nor da David? David informatikaria da.	¿Quién es David? David es informático.
Nor da informatikaria? Informatikaria David da.	¿Quién es el/la informática/o? El informático es David.
Nor da Erosketako arduraduna? Erosketako arduraduna Julen da.	¿Quién es el/la encargada/o de Compras? El encargado de Compras es Julen.
Nor da komertziala? Komertziala Miren da.	¿Quién es comercial? Miren es comercial.
Nortzuk dira komertzialak? Miren eta Jon komertzialak dira.	¿Quiénes son comerciales? Miren y Jon son comerciales.
Nor da biltegiko arduraduna? Biltegiko arduraduna Aitor da.	¿Quién es el/la encargada/o del almacén? El encargado del almacén es Aitor.
Nor da komertzialen zuzendaria? Zuzendaria Julen da.	¿Quién es la/el directora/o de los comerciales? El director es Julen.
Nor da Carlos? Carlos enpresako langilea da.	¿Quién es Carlos? Carlos es un trabajador de empresa.
Zu nor zara? Ni enpresako nagusia naiz.	¿Tú quién eres? Yo soy la/el jefa/e de empresa.

NOLA? ¿COMO?

Nola dago Cristina?	¿Cómo está Cristina?
Cristina nekatuta dago	Cristina está cansada
Mikel lur jota dago	Mikel está muy cansado
Jabi gaixorik dago	Jabi está enfermo
Nola egin behar da?	¿Cómo hay que hacerlo?
Nola dago ibilgailua?	¿Cómo está el vehículo?
Autoa apurtuta dago	El coche está averiado
Kamioia konponduta dago	El camión está arreglado
Zorua zikin dago	El suelo está sucio
Leioa garbi dago	La ventana está limpia

NON? ¿DÓNDE?

Non dago Ane?	¿Dónde está Ane?
Bezero batekin dago	Está con un cliente
Oporretan dago	Está de vacaciones
Komunean dago	Está en el baño
Kanpoan dago	Está fuera
Bazkaltzen dago	Está comiendo
Batzar batean dago	Está en una reunión
Lanpetuta dago	Está ocupado/a
Non dago txostena?	¿Dónde está el informe?
Mahai gainean dago	Está encima de la mesa
Hemen dago, hemenxe	Está aquí, aquí mismo
Non dago autoa?	¿Dónde está el coche?
Ez dakit non dagoen	No sé donde está

NORA? ¿A DÓNDE?

Nora joan da Ander?	¿A dónde ha ido Ander?
Tailerrera joan da	Ha ido al taller
Etxera joan da	Ha ido a casa
Nora zoaz?	¿A dónde vas?
Etxera noa	Voy a casa
Lanera noa	Voy al trabajo
Nora doa Gorka?	¿A dónde va Gorka?
Gorka Bilbora doa	Gorka va a Bilbao
Nora joan behar dut?	¿A dónde tengo que ir?
Jasogailura joan behar duzu	Tienes que ir al montacargas
Nora daramazu hori?	¿A dónde llevas eso?
Bulegora daramat	Lo llevo a la oficina
Nora eraman behar da?	¿A dónde hay que llevarlo?
Bilbora eraman behar da	Hay que llevarlo a Bilbao
Nora bidali duzu e-maila?	¿A dónde has enviado el e-mail?
Zure postara bidali dut	Lo he enviado a tu correo

NOIZ? ¿CUÁNDO?

Noiz hasiko da bilera?	¿Cuándo empieza la reunión?
Goizeko zortzietan	A las ocho de la mañana
Noiz amaituko da bilera?	¿Cuándo acaba la reunión?
Eguerdian	A mediodía
Noiz etorriko da?	¿Cuándo va a venir?
Gaur helduko da	Llegará hoy
Bihar edo etzi helduko da.	Vendrá mañana o pasado mañana.
Noiz egingo duzu?	¿Cuándo lo vas a hacer?
Goizean egingo dut	Lo haré esta mañana
Arratsaldean egingo dut	Lo haré esta tarde
Aurreko astean	La semana pasada
Herenegun	Anteayer
Lehen	Antes
Orain	Ahora
Oraintxe bertan	Ahora mismo
Gero	Luego
Iluntzean	Al anochecer
Bihar goizean	Mañana por la mañana
Bart	Ayer por la noche
Iaz	El año pasado
Egunen batean	Algún día
Inoiz ere ez	Nunca

NOIZKO? ¿PARA CUÁNDO?

Noizko egongo da amaituta?	¿Para cuándo estará acabado?
Gaurko egongo da	Estará para hoy
Biharko egongo da	Estará para mañana
Etzirako egongo da	Estará para pasado mañana
Arratsalderako egongo da	Estará para la tarde
Noizko behar duzu hori?	¿Para cuándo necesita eso?
Gaurko behar dut	Lo necesito para hoy
Biharko behar dut	Lo necesito para mañana

NORENA? ¿DE QUIÉN?

Norena da ibilgailu hau?	¿De quién es este vehículo?
Bezeroarena da	Es del cliente
Gurea da	Es nuestro/a
Enpresarena da	Es de la empresa
Norenak dira laneko jantzi hauek?	¿De quién son estos buzos de trabajo?
Langileenak dira	Son de los trabajadores/as
Gureak dira	Son nuestros/as
Ez dakit norena den	No sé de quién es
Enpresarenak dira	Son de la empresa

NORENTZAT? ¿PARA QUIÉN?

Norentzat da txostena?	¿Para quién es el informe?
Nagusiarentzat da	Es para el jefe / la jefa
Norentzat dira eskariak?	¿Para quién son los pedidos?
Komertzialarentzat dira	Son para el/la comercial
Norentzat da hori?	¿Para quién es eso?
Hori niretzat da	Eso es para mí
Norentzat ekarri dute pakete hau?	¿Para quién han traído este paquete
Biltegi zainarentzat ekarri dute	Lo han traído para el encargado del almacén

NOREKIN? ¿CON QUIÉN?

Norekin dago Ane?	¿Con quién está Ane?
Ane nagusiarekin dago	Ane está con el/la jefe/a
Norekin hitz egin nahi duzu?	¿Con quién quiere hablar?
Komertzial batekin hitz egin nahi dut	Quiero hablar con un/a comercial
Norekin adostu duzu hori?	¿Con quién has acordado eso?
Hori arduradunarekin adostu dut	Eso lo he acordado con el/la encargado/a
Norbaitekin al zaude?	¿Estás con alguien?
Ez, ez nago inorekin	No, no estoy con nadie
Bai, norbaitekin nago	Sí, estoy con alguien
Nagusiarekin egongo zara?	¿Vas a estar con el jefe?
Ez, ez naiz nagusiarekin egongo	No, no voy a estar con jefe.